

Elizaz betetako landatar udalerria

MARKINA-XEMEIN. Marmol harrobiek eta zesta puntak herria ezagun bihurtu dabe. Dana dala, inguruotan pasiaran jarduten daben bisitariak ohartuko dira otoitz gune handinahiak edonon ageri dirala.



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Solartekua torrearen ondoan —laster Udaletxea jarriko dabe bertan— dagoz Karmengo eliza eta iturria.

Iban Ocio | **MARKINA-XEMEIN**


Bizkaiko On Tello jaunak 1355ean sortu eban Markina, gipuzkoarren erasoetatik babesteko. Gerora jaio zan Markina-Xemein, 1969an, uribildua Ziortzako eta Xemeingo elizateekin lotu ostean. Gaur egun, Lea-Artibaiko udalerrri garrantzitsuenetakoa haxe dogu. Beste ezerk baino gehiago, marmol harrobi ospetsuek eta zesta punta partiduek egin dabe ezagun. Baita baztarrorako eraikuntza handinahiek be: eliza, jauregi eta baserriek. Landa ingurune ederra da, barrualdeko udalerrri abegitsua. Bertako etxalde goraiatuenak ikusteko txango ugari egin leitezke. Ganera, bisitariak ondo gozau leikie Markina-Xemeindik

abiatzen diran mendi ibilbideez.

Urigunean barrura

Udalerriko lekuri aipatuena Markina da. Uriburuan dagoz sona handieneko eraikinak. Arretxinagako San Miguel basiliza, esate baterako. Berezia da gordetan dituan dolmen itxurako hatxengaitik; harritxarrron erdian dago santu bedainkatua. Lehenago inguruotako bizilagunek uste eben antxinako jentilek sortutako monumentua zala. Baina adituek erakutsi dabe, natureak berak moldatu dituala egitura geologikook. Beste alde batetik, ohitura zaharrak dino, hatxak ikutu barik euren artetik igaroten diranak, handik egun gitxira ezkongaita topauko dabela.

Baselizatik haruntzago, alde zaharrean, Udaletxea dago. Barroko estiloko zortzi zutabek apaintzen dabe aginte egoitza: Oiz menditik ataratako harria baliatu eben basa txukunok gorpuzteko. Dana dala, Markina-Xemeinek laster izango dau Udaletxe barria, itxurosoa oso. Solartekua Jauregian ipiniko ditue udalerrria kudeatzeko bulegoak. Handik gertu Karmengo eliza eta iturria dagoz. Iturria Markinako marmol griszez osotu eben —Mogelen olerkiak irakurri leitezke bertan—. Urigunean, ganera, Ospitale Zaharra topau leitezke. 1869an eregi eben osasun etxea. Baserri eta landako etxe ingelesak ezaugarriak uztartzen dituen eraikuntza deigarria da. Andonegi, Ansotegi eta



NON ZER

MARKINA-XEMEIN

Biztanleak: 4.735

Euskaldunak: %90

Zelan heldu

Bilbotik Durangorako autopistea hartu. Gero, Markina-Xemeinera doan Bi-633 errepedeiri jarraitu.

Aholkuak

Ordu biko mendi ibilbidea egiteko zapata arinak eroan.

Jateko

Armola Jatetxea (946168179); Itxas-lur Jatetxea (946167809); Pitis Jatetxea (946166087); Axpe Sagardotegia (946168285).

Bertako jaiak

Garagarriaren 16an, Karmenak. Irailaren 29an, Arretxinagako San Miguel eguneko ospakizunak.



Ondarea

Arretxinagako San Miguel eliza; dolmen itxurako hatxak dagoz barruan. Karmengo eliza eta iturria; kanposantu neoklasikoa; Ziortzako kolegiata; Ospitale Zaharra, eta Bolibar auzoa.

Mugartegi jauregiak be inguruon dagoz. Antxia eta Ugarte torre erdi-apurtuak be bai. Azkenik, Euskal Herriko monumentu nazional lez bataiatu daben kanposantu neoklasikora joan leitezke bisitariak —Xemeingo elizaren ondo-ondoan dago—.

Bolibar eta Ziortzako kolegiatea

Uriburutik lau edo bost kilometrorra dago Bolibar, udalerriko auzo goraiatua. Bertan jaio ziran Simon Bolivar "askatzailaren" arbasoak, eta bertan eregi eben Venezuelara —asteon tentsinoa gori-gori dagoen

herrialdera— joandako gizasemearen omenezko eskulturea. Simon Bolivarren gorazarreko museoa be auzoan egin dabe.

Bolibar parean Ziortzako Kolegiatea topauko dabe bisitariak. 968an eregi eta XVI. gizaldian barritzatu eben egoitza. Klaustro errenazentista dauka, danetariko arkuez osotua: beheratuak, erdi puntukoak... Harearritzko hilaari monolitikoa be eraikin erdialdean dago. Ziortzakoari Kolegiata deitzen jako, eliza katolikoak barik, abade batek agintzen ebalako bertan.

Santa Eufemia jopuntu

Uriguneok bisitau ostean, mendian gora abiatu leitezke ibiltariak; Markina-Xemeindik Aulestiko Santa Eufemia baselizara garoazan txangoa beteko dogu. Ordu biko osteratxo samurra da, eguraldiak lagundu ezkerro, baztarron panoramika ikusgarriak miresteko aukera parebakoa eskaintzen dauana.

Karmengo iturrian hasiko dogu ibilbidea. Artibai zeharkatu, Atxondoa zeharkaletik segidu eta Arretxinagako zubia pasauko dogu. Aldasgoran doan bidexkatik abiatuko gara. Lehenengo bihurrunera heldu ostean, pinudia inguratzen dauen bidea beteko dogu. Argiztatze torrea atzean lagata helduko gara Igotz baserrira garoazan bidexkara. Gero, Larrutz baserrira-

ko txangoa egingo dogu. Bidean, Lea-Artibaiko muino altuenak ikusiko doguz. Larrutzetik nahikoa gertu dago Santa Eufemia baseliza eta astialdi gunea. Inguruotan atsedean hartu ondoren, Bedartzaundi edo Zapola gainetara joan geinke, edo Santa Eufemia parean dagoan Urregaraitik pasiaran jardun.

Markina-Xemeinen gozatu ederra hartu leikie bertara joaten diran bisitariak: urigunea bisitau, mendian ibili, eta herri-itzultzerako bertako sukaldaritzeara dastatu: indabak, piper beteak, gatzatua, eta jakina, Markinako kokote ospetsuak (Tate tabernan egindakoak). Zesta punta gustoko izan ezkerro, ganera, herriko pelotalekuan —Pelotaren Unibertsidadean— partidu interesgarriak ikusi leitezke. Orobat, egun pasa sekulakoa egin leitezke Markina-Xemeinen.